

# erdiko kaira

## Bertsolaritza

# Iparaldeko Bertsulari Xapelketa Nire gomutatik

Haurtzaroan dut nire bertsoarekiko zaletasuna kokatzen. Amaren aldeko aitona nuen horretan jolastia, edozein esaldiri erantzun errimatua emango ziona. Ditzolaria. Oiartzungo ostegunak, barberoenean hasi eta Errenteriako (ez genuen orduan Oretaren berri) Gaxparrenean (ardo zahagiak eskegi) bukatu, bertso egunak ziren.

JOXEMARI OSTOLAZA

UZTAPIDE ZUEN AITONAK feria lagun eta egun osoa pasatuko zuten elkarrekin. Ordurako ni erdalduntzen hasia nintzen eskola publikoa mundu. Ez nuen deus estimatzen kantatzen zutena. Kantari onak ezagutzen nituen, Donostiako katedralean hileta elizkizunetan (*primerísima* eta *primera* bezala sailkatuetan korala aritzen baitzen) eta igandetan meza nagusian polifonian aritzen zirenak. Eta Uztapide eta aitona, haien aldean eskasak ziren kantuz, ezin nuen ulertu inguruan sortzen zuten arreta eta miresmena.

1966

Donostiako Txapelketa Nagusia. Hara egin nuen, berreuskalduntzeko ahaleginean nabilela. Ez nuen Xalbador ezagutzen, Iparraldekoa izanik sinpatia berezia nion, Labegerieren kantuek eraginda edo. Saiotik, txistuen pasarte ezagunaz gain gogoan dudana, Xalbadoren estetika da: janzkeraz, mugimenduz eta itxuraz berezia iruditzen zitzaidana. Lehen agurretik, haren hizkera ulertzeko gauza ez nintzela izango ohartu nintzen. Halere, arreta osoz jarraitzen nion bere kantuetan, ber-

Soka beraren bi muturrak: ezkerreko argazkian Mattin Treku, Xalbadorrekin batera Iparraldeko bertsolaritzan mugarri garrantzitsua; eskuineko fotoan, egungo mugarriak, azaroaren 15ean Donibane Lohitzuneko finalean ariko diren bertsolariak.



tsolaria belarriz ikusten nuenaren inpresio bitxiz.

*Ena? Banaz?* Xabier Amurizaren liburua irakurri nuelarik baieztatu ahal izan nuen nire orduko susmoa, orain berrirakurtzean indartu zaidana: txapela berak merezi zuen. Jakin berri dut, Uztapidek egun hartan esan ziona: “txapela zuri eman izan bazizuten, jende aurrean besarkatuko *nizun*”. Afektiboki, Uztapide nuen gogoko, baina Xalbador beste frekuentzia batean ari zenaren sentipena izan nuen. Txapelketa hartan Xalbadorrek kantatu zenbait bertso buruz ikasi nituen, haien barneko sorginak harrapatuta, bere esanahi literala eta mezu zuzena harrapatu gabe.

### Mattin

Gipuzkoako Beterri aldean bera eta Xalbador jarraitzeko aukera ugari izan nuen. Orereta, Usurbil, Añorga bereziki. Gure aitonaren antza hartzen nion Mattini: ttikia, umoretsua, azkar kantatzen zuena eta tonu altuetan. Gehienetan irriz. Kontentu. San Jose egun batean, Añorga auzoan, Joxe Mari Aranalde gai-jartzaile eta aurkezle zutela ikusi nuen Mattin larri kantuz. Etxetik deserrira lanera joandako semeari kantatu behar zion. Negar zotinka bukatu zuen bere saioa. Aretoa lehertu zitzaion txaloz. Ulergarriagoa egiten zitzaidan lapurtarra, begiz entzuten nion bertsoa. Ez zuen sorginik, beira zen.

### Nafarroakoa, oasi

Iparraldera bizitzera joan nintzenean, bertso saioetatik aldendu egin nintzen. Ez nuen aukera handirik aurkitu. Igandero elkartzenginen Xanpunekin, Donibane Lohitzuneko Sabin Etxea ostatuan. Chez Pablon. Gure aitarekin joaten nintzen eguerdietan, eta Xanpun ere berearekin etortzen zen mezatik landa. Berak ematen zigun saioen berri. Oso gutxitan kantatzeko parada zuela aitortzen zigun. Asteazken zehar, ostatu berean ikusten genuen Dominique Ezponda, bere kantu laguna gehienetan, eta honek ere kontu bera zuen, gutxitan aritzen zirela bertsoan baitzioen. Eta bertsoetara joandako zenbait lekutan, ez omen zituzten entzuten ere, jendearen harrabotsen artean kantatu behar izaten zutela-eta. Bestaldean bai, han bertsolariak entzutera joaten omen zen jendea. Eta



**Goiko argazkian Xanti Iparragirre; behekoan Jexux Arzallus 1996an Nafarroako Txapelketa irabazi zuenean. Biak, beste askorekin batera, gogor aritu dira lanean Iparraldeko bertsolaritza sustatzen.**

bertsolari belaunaldi berriak, Nafarroako Txapelketa izan zuen behar zuen balanka. Emaitzetan ikus zitekeen alde honetako bertsolarien ekarpena.

Ezpondak bi txapel, Mixel Xalbadorrek hiru, Jean Pierre Mendibourek bi, Ernest Alkhatek bi, Jexux Arzallusek bat, Amets Arzallusek lau, eta hauekin batera parte hartutakoak, Joanes Arrosagarai zena, Fermin Mihura, Laka, Urko Atxotegi, Inaxio Olaziregi, Miren Artetxe finalista behin eta Sustrai Colina bi aldiz txapeldunorde. Hamahiru txapela.

### Elkartea

Bertsolaritza sustatu nahiz hasi ziren biltzen zenbait bertsolari eta bertsozale. Gogoan ditudanak (barkatuko al naute ezagutu ez eta aipatzen ez ditudanak) Emile Larre, Xanti Iparragirre, Santos Beloki, Mixel Itzaina, Mixel Lekuona... Eta mugimenduak hasi ziren. Bertso eskola zenbait eta Laka eta Mihura saioak antolatzen edo, eta baita ere kantari zenbaitetan. Xanti Iparragirre Almen bertso eskolako (Leintz, Gipuzkoa) eskarmentuz, Amurizak defendatutako oinarritz

ko ideia berri hura egiaztatuz, bertsoak egiten ikasi litekeela zioena, hasi zen lanean. Angelu, Uztaritze... Zabaltzen hasi ziren bertso eskolak eta Donibanen eta Urruñan ere martxan jarri ziren. Egituratzten joan zen elkarteak. Goian aipaturikoez gain, ez dakit ba ote ziren gehiago zuzendaritzan. Baleude, barka biezate nire ezjakintasuna.

Bertso saiotako deiak zentralizatzen hasi ziren alde batetik, eta bestetik plaza berrien bila zuzendu zituzten beren indarrak. Euskal Kultur Erakundeak ere urtero antolatzen zituenak, elkartearen esku uztea erabaki zuen. Ezagutua da Daniel Landarten bertsozaletasuna, ez dira gutxi izan gai-emale eta aurkezle lanetan ezagutu duten bertso saioak. Sarakoa hainbat urtez, eta bereziki akorduan dut Urruñako Itsas Mendi zinema salan, Manuel Sein Xanpuni egindako omenaldikoa.

Bitartean, ikastoletan pixkanaka sartzen joan ziren. Xanti Iparragirre, Ernest Alkhat, Anje Duhalde, Jexux Arzallus, Isarzelaia... Erabiltzen zituzten materialak, Amurizaren apunteak ziren, geroago liburuetan publikatuko zirenak.

Gipuzkoan Mikel Mendizabal zebilen Diputazioak lagunduta ikastolaz ikastola taldeak egiten. Gogoan dut nola ibiltzen zen doinuak estudioan grabatzen ikasleek eskura izan zituzten. Bizkaian ere, Jon Lopategi ari zen zeregin berdintsuan. Eta hemen ere, hangoen moduan, eskolarteko txapelketak martxan jarri zituzten.

Baina jauzi indartsuena 1998an eman zuten, elkartearen bide estrategikoan bidezidorraz gain peajeko autorrutak hartu zituztenean Karlos Aizpurua oiartzuarren kontratazioarekin. Ordura arte Eskolarteko Txapelketetan bertako sailkapenak modu pribatuan egiten bazituzten, hortik aurrera egitura formalez sozializatzen hasi

ziren. Lan taldeak osatu, gaiak, epailetza, ikastoletako saioak, udaleku bereziak...

Lehenagotik, Hendaiaiko Nagore Fernandez gaztetxo txapelduna izana zen eskolartekoan. Urko Atxotegi ere gogoan dut, gero Nafarroako Txapelketan parte hartu zuena. Ez dakit ez ote zen finalista izan. Eta 2000tik hona dago sailkapen prozesua, metodologiaz eta egituraz finkatua, parte-hartzaile ugariz eta bi mailatan antolatua, 40 bat neska mutil bertsoan aritzen direlarik. Eta Karlos Aizpurua irakaslea izan ezik, Azaroaren 15ean Donibane

Lohitzunen kantatuko duten finalista guztiak hortik pasatakoak dira. Baita txapelketako sailkatze saiotan kantatu duten guztiak ere, Xan Alkhat, Egoitz Zelaia eta Mixel Xalbador salbu. Xenpelar Dokumentazio Zentroan kontsulta daitezke emaitzak, urtez urte, txapelketaz txapelketa.

Beraz, emaitzek erakusten dute lana zenbatekoa eta nolakoa izan den.

Elkartea gorpuzten joan da ikasleen gurasoen parte-hartzearekin bereziki. Aitor Sarasua, Alain Mateo, Kepa Murua, Jexux Arzallus, Maialen Hiribarren, Maurice Agirretxe, Beñat Zule, Erik Etxart, Elosegi, Elianne Mendiboure... Eta seguru aski ez dakizkidan batzuk izango ziren hor ere.

Sustatze lanetarako langile bat hartua dute jada, Hegoaldeko elkartearekin lanean ari dena. Sistematizazio horrek ekarri gaitu honaino, gaurko Bertsulari Xapelketa muntatu ahal izateraino. Zalegoaren garapenaz daukat nire zalantzak, ez dut egindakoari legokiokoen arrakasta sozialik ikusten. Desoreka nabarmenena hor dagoela uste dut. Jai Alaiek ez gaitzala itsu bilakatu. ■

**[www.argia.com/argia-astekaria](http://www.argia.com/argia-astekaria)**  
helbidean, Ostolazak eginiko Xapelketako saioen kritikak.

### Zalegoaren garapenaz daukat nire zalantzak, ez dut egindakoari legokiokoen arrakasta sozialik ikusten.

**gure artean euskaraz**

